

IBARRA. Liburutegia, puntaren puntan. Juanjo Alustizak, liburutegiko arduradunak, 2006. urteko balantzea aurkeztu du, balorazioa egin eta zerbitzua hobetzeko asmoz

ASIER IMAZ

Goizeko hamarretako kafesnea hartu eta ateak zabaltzen ditu Juanjo Alustizak. Eguneroko prentsa bere lekuan jarri, begiraturen bat eman gainetik eta eskuetan baso beroa duela aurreko egunean airean geraturiko lanak egiten hasten da bere aulkian eserita. Ibarako liburutegia zabalik dago.

13 urte daramatza Juanjok Ibarren lanean, alegiarra izan arren bertakoa sentitzeko nahikoa denbora, izan ere herriko askok baino hobeto ezagutzen du Ibarra eta bere bilakaera. Denbora honetan liburutegian ere aldaketa handiak izan dira, kokalekutik hasi eta barne funtzionamenturaino. Garai batean liburuak bakarrik aurkitzen baziren, gaur egun CDak, bideoak, DVDak eta interneta ere aurki dezakete. Hau informazioa lortzeko lekua da, eta ondorioz interneta eta liburutegia elkar loturik doaz.

2006. urteko balantzea aurrean duela, datuen nondik norakoa aztertzen hasi da Alustiza. Bazkideek gora egin dute; 169 gehiago daude orain, denera 668 irakurle txartel. Baina 4.000 biztanle inguruko herri batetarako ez dira horrenbeste. Hala eta guztiz ere, aktiboak direla ezin ukatu, urtean 12.251 mailegu egin baitira.

Eskaintzarik ez balitz egongo ez lirateke horrelako daturik egongo, eta eskaintzaz galdetuta, hiler material berriena erosten saiatzen dela aitortzen du. 6 edo 8 DVD eta CD erosten ditut, 20 bat liburu ere bai. Gero boletin batean berrikuntzak jartzen ditut, baita Blogean ere. Jendearen erantzuna kontutan hartuta, nabarmentzekoa da ikus-entzunezko materialek izan duten arrakasta, DVDek batez ere, jadanik mailegu guztien %61 baitira. Irakurleek ere 2006an gora egin dutela diote datuek, 817 liburu gehiago, gehien gazte eta haurrak hartzen dituztelarik. Urteko libururik irakurriena berriz, euskarazko eleberri bat izatea sorpresa bat izan dela aitortzen du Juanjok, Jon Maiaren Riomundo. Harro esaten duen datua da hau, bera liburutegian dagoen denboran ez baita euskarazko libururik izan inoiz urteko irakurriena. Best Seller-en idazleak izan dira autore irakurrienak, Dan Brown batez ere, baina lehen aldiz izan da euskal liburu bat lehen irakurriena. Gorakada honetan, jendeak behar dituen liburuak lortzeko dagoen aukerak kontutan hartu beharko lirateke, izan ere, norbait liburu baten izenaz etortzen bada, behar duela esanaz, bi aukera daude; lehena beste liburutegiren batetatik ekartzea, honetarako liburutegi arteko mailegua dago Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan, eta bigarrena, guk erostea.

Haurrentzat ere aukera

Haurrentzat Ibarako liburutegiak duen txokoa sartu eta jarraian ikusten da. Parke txiki baten modura, lurrean jolastu eta marrazkiak ikusteko aukera dute bertan. Haurrentzat ere ekitaldiak antolatzen saiatzen dela ezin dezake ukatu Alustizak, iaz txikienentzat ipui kontalariak ekarri genituen, 6 izan ziren guztira. Erantzuna ona izan zen, 50 ume inguru batez beste. Irakurketa bultzatzeko eta liburutegia ezagutzeko balio dezakeela uste dugu.

Zerbait ahaztu ote zaigun galdetuta, Blog-a eta entzunezko liburuetaz hitz egiten du. Entzunezko liburuak orain erosi ditut, CD formatoan dauden nobela klasikoak dira; Kafka, Moby Dicken egilearenak.... Bloga berriz, bi astean behin berritzen dut. Bertan jendeak parte har dezake, dagoen materiala ikusteaz gain, iradokizunak, etabar sar ditzake, edo niri hona ekarri nik sartzeko.

Alustizak amaitu du kafesnea, indar berritu da egunari aurre egiteko. Datuak datu, goiza besterik ez da eta egun guztia du gaurko lana amaitzeko. Agian liburuak txukunduko ditu hemendik aurrera edo Marxismoaren inguruko liburuentzat apal berriak erosi. Izan ere, kritika batzuk jasotzen ditu, noizean behin bada ere.